



Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 2koa. Horren bidez, amaitutzat ematen da, ikasketen aldeko laguntzen eskabideak kudeatzerakoan, aurretik egindako gastuen konpentsazio gisa enpresak edo enplegatzaileak ordaindutako zenbatekoen tratamenduari buruzko bere jarduera.

Aurrekariak

1. Kexa jaso genuen eta, horren bidez, herritar batek eskatu zigun azter genezala Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak burututako jarduera 2005eko uztailaren 26ko Aginduaren bidez argitaratutako deialdiaren esparruan bere alabentzat egin zituen ikasketen aldeko laguntza-eskaerei dagokienez..

Zioenez, prozesu horren behin-behineko ebazpenaren arabera, material didaktikorako baino ez zitzaien emango laguntza bana eta uko egingo zitzaien jantokirako laguntza-eskaerei, deialdiko 13.1 artikuluan ezarritako atalaseen taula gainditzen zelako.

Interesdunak esandakoarekin bat etorriz, PFEZaren 2004ko aitorpenak garbi uzten zuen famili unitatearen diru-sarreraren baturak ez zituela ezarritako mugak gainditzen. Hala ere, itxuraz, hezkuntza-administrazioak deialdiko testuaren 15.1 artikulua aplikatu zuen eta, hala, diru-sarrera konputagarriari haren senarrak jaso zituen eta eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan halakotzat hartu ez ziren zenbait kopururen zenbatekoak ere kontuan hartu eta gehitu zituen.

Kexa aurkeztu zuenak adierazi zuen enpresak eman ohi dituela kopuru horiek, haren senarrak bere lana garatzeko egin behar izan dituen gastuak itzultzeko; izan ere, enpresak luzatu zuen eta, ondoren, guri aurkeztu ziguten ziurtagiriaren arabera, pertsona horren ordainsariarekin batera, “hilerok, beste kopuru bat ematen da, enpresaren kontura egindako gastuengatik.”

2. Kexa hau aztertzerakoan, erakunde honek ondoko alderdiak izan zituen kontuan:

* Hain zuzen ere, 2005eko uztailaren 26ko Aginduaren 15.1 artikulua aipatzen du, aitorpena PFEZ bidez egin duten kide konputagarrien errenta garbia zehazteko, “PFEZari ez dagozkion diru-sarrerak” hartu beharko direla kontuan.



* Abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen du Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 9. artikuluan zehazki errenta salbuetsiak zeintzuk diren jasotzen du. Errenta salbuetsien artean ez dira aipatzen bidai saria eta mantenu-ordaina eta, ikus dezakegunez, horiei dagozkien zenbatekoek eragin dute kexa hau jartzea.

* Bestalde, testu horren beraren 15.2 artikulua lan errendimendutik kanpo uzten ditu bidaia, mantenua eta ostalaritzako establezimenduetan egin beharreko egonaldia ordaintzeko jasotzen diren diru-kopuruak, betiere, hauek muga batzuetatik behera badaude (zehazki, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia onesten duen uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren 6. artikulua finkatutakoetatik).

Kopuru horiek ezin dira, beraz, errenta salbuetsi gisa hartu, baizik eta zergapetuta ez dauden kopuru gisa, zenbateko horiek ez baitakarte diru-sarrerara gehiago izatea edo ahalmen ekonomikoa hobeto erakustea; aitzitik, aurretik egindako gastuen konpentsazioa dira. Kasu gehienetan, kopuru horiek interesdunari ordaintzen zaizkio, gastua egin dela justifikatzen duen agiria aurkeztu ondoren.

Horrela, interesdunaren adierazpenak baieztatuko balira, PFEZari erantsitako zenbatekoak berez ez lirateke emaitzazko ondarea gehitzea dakarren diru-sarrerara; alderantziz, gastuen eta sarreraren egoera orekatzen lagunduko lukete eta, beraz, ez lukete inolako eraginik ahalmen ekonomikoan. Gure ustez, alderdi hori hartu behar da funtsezko datutzat ikasketa laguntzak emateko prozeduran.

3. Kasuan kasuko lankidetzaz-eraketa aipatu ildotik eginda, Hezkuntza Administrazio eta Kudeaketako zuzendariak txostena helarazi zigun eta, bertan, ondokoa adierazi zuen:

2005eko uztailaren 26ko Aginduak (2005eko irailaren 1eko EHAA) 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, beka berritzen duten ikasleek beka-inprimakia besterik ez dute aurkeztu behar Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan. Inprimaki horretan familiak Foru Aldundietako Ogasun Sailean dauden familia unitateko kontatzeko kideen datuak erabiltzeko baimena ematen dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Foru Ogasunak berak bidalitako datuetan bi diru-sarrerara mota agertzen dira: errenta-aitorpenaren ondorioetarako kontak daitezkeenak ((...)) euro kasu honetan) eta kontatu



ezin direnak (...) euro kasu honetan), baina bi kasuetan Foru Ogasunak diru-sarreratzat jotzen ditu aipatutako zenbatekoak.

2005eko abenduaren 21ean 2005/2006 ikasturterako beka ematen zela jakinarazi zitzaion familiari. Izan ere, ikasmaterialerako zenbatekoa eman zitzaien, ez baitzituzten jantokirako laguntza lortzeko baldintzak betetzen (errenta-muga).

2006ko urtarrilaren 2an (...) andreak alegazio batu aurkeztu zuen beka emateko erabakia dela-eta. Izan ere, familia unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko gehitu den zenbatekoa langileak bere soldatik enpresari aurreratzen zizkion zenbatekoei zegokiela argudiatzen zuen eta, argudio honi eusteko, ondorengo hau hitzez hitz dioen idazki bat aurkeztu zuen: “ikuskari gisa duen ordainsariari zenbateko bat gehitzen zaio hilerok, enpresaren kontura egindako gastuen kontzeptuan”. Aurkeztutako idazkia ez da ari garen kasuari buruzkoa: ez du zenbatekoei buruz hitz egiten, ezta Foru Ogasunak diru-sarreratzat jotzen duen inolako zenbatekoari buruz ere.

Urtarrilaren 17an, eta espedienteari funtsezko ekarpenik ez zitzaiola egin kontuan hartuta, aurkeztutako alegazioak ez zirela kontuan hartu jakinarazi zitzaion familiari, beka-deialdiaren 15.2 artikuluan oinarrituz. Artikulu horren arabera, “errenta garbia zehazteko edozein kontzeptutan lortutako diru-sarrerak hartuko dira kontuan”.

2006ko otsailaren 13an (...) andreak beste idazki bat aurkeztu zuen, birjartze-helegite gisa. Alegazio-aldian azaldutako argudio berberak erabili zituen eta ez zuen ematen dituen datuen inolako justifikagirik aurkezten. Dena den, espedientea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zerbitzu juridikoetan tramitatu da, gaia berriz aztertzeko asmoz. Gauzak horrela, espediente hau oraindik tramitazio-fasean dago.”(sic)

4. Lehen erantzun horren ildotik, ohartu ginen beharrezkoa zela proposamen osatuagoa egitea, arrazoibide jakin batzuekin bat etorriz. Arrazoibide horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunei helarazi genizkien bere garaian eta, funtsean, ebazpen honen oinarri diren gogoetekin bat datoz.
5. Hala ere, gure proposamenari jaramonik egin gabe, hezkuntza-administrazioak Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen 2006ko ekainaren 21eko Ebazpenaren kopia baino ez zigun helarazi (ebazpen horren bidez, kexa aurkeztu zuen interesdunaren errekurtsioa gaitzetsi zen).



Gogoetak

1. Erakunde honek uste du ikasketa-laguntzen konfigurazioak berak familien ahalmen ekonomikoarekin zerikusia duela eta zehazki horregatik hartzen dela kontuan errenta, horretarako adierazle garrantzitsua den heinean, baina, betiere, ondarea aipatzeari utzi gabe, ahal ekonomikoaren adierazgarria baita.

Kexa aztertzeko egin beharreko analisisian, egia da zerga-arauegiak ez dituela diru-sarrerak eta errentak parekatzen eta, horren ondorioz, batzuetan eta orain aztertuko ez ditugun arrazoiak direla medio, jasotzen diren kopuru jakin batzuk ez dira PFEZn barneratzen.

Halaxe gertatzen da beste kontzeptu batzuen zioz jasotako zenbait prestazio, laguntza, diru-laguntza eta kopururekin; izan ere, horiek, zerga horretan eraginik izan ez arren, hartzailearen ahalmen ekonomikoa handitzea egiten dute. Adibide gisa eta, beharbada, alderdi esanguratsuen delako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 9. artikuluko g) atala aipa daiteke. Horren arabera, honako hauek salbuetsitako errentatzat hartuko dira: *“Estatuko Loteria eta Apustuen Organismo Nazionalak edo autonomia-erkidegoek antolatutako loteria, joko eta apustuetako sariak, Gurutze Gorriak antolatutako zozketetakoak eta Espainiako Itsuen Erakundeak antolatutako zozketetakoak.”*

Hortaz, gure iritziz, eta oro har, bistakoa da, kontzeptu horiek eraginik ez duten arren PFEZren aitortzean, kontuan hartu ahal izango direla ikasketa-bekak eta laguntzak emateko baldintzak ezartzerakoan, ez baititugu ahaztu behar hauen xede diren ezaugarriak, helburuak eta baldintzak. Gure ustez, horixe da deialdiaren asmoa, honela baitio: *“PFEZtik salbuetsitako diru-sarrerak aurreko formularen bidez lortutako emaitzari gehituko zaizkio.”*

2. Hala ere, badira beste zenbateko batzuk ere, beren berezitasunak direla medio, zerga-arauegian beste modu batera hartzen direnak. Kopuru horiek ere diru-sarrerak dira, interesdunaren ondarearen parte izatera igaro baitira, baina ez dakarte etekinik eta, beraz, arautegiak ez die zergarik jartzen. Horien artean daude, besteak beste, joan-etorrietarako, mantenurako eta arauz ezarritako muga jakin batzuen azpitik dauden ostalaritzako establezimenduetako egonaldietarako diren diru-kopuruak.



Aurretik ere esan ahal izan dizugun moduan, kopuru horiek ez dute adierazten ahalmen ekonomikoa handiagoa denik; aldiz, jasotzen dituen pertsonak aurretik egindako gastuak konpentsatzen dituzte. Horrek adierazten du, gehienetan, kasuan kasuko gastua egin dela justifikatzen duen agiria aurkeztu ondoren ordaintzen direla.

Horrela, eta, lehen esan bezala, inork ezin duen arren zalantzan jarri diru-sarrerak direnik, kopuru horien konfigurazioak berak garbi uzten du horiek ez dakartela emaitzazko ondarea gehitzea; alderantziz, gastuen eta diru-sarreraren egoera orekatzen dute eta horregatik ez diote kalterik egiten ahalmen ekonomikoiari, aipatu bezala, ahalmen hori baita ikasketa-laguntzen banaketa egituratzen duen elementua.

Horrela, adibide gisa, eta joan-etorrietarako gastuei dagokienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Erregelamenduak (132/2002 Foru Dekretua, uztailaren 29koa) honakoa aipatzen du: *“Kargatik salbuetsiko dira enpresak edo enplegatzaileak erabiltzen dituen kopuruak, baldin eta horien helburua bada lantegi, lantoki, bulego edo laneko zentrotik kanpora joan behar duen enpleguaren edo langilearen joan-etorri gastuak konpentsatzea; baldin eta joan-etorri hori egiten bada lana beste toki baten egiteko, eta ondoko baldintza eta zenbatekoak suertatzen badira: a) Enpleguak edo langileak herri garraiobideak erabiltzen baditu, gastuaren zenbatekoa frogatu behar da faktura baten bidez edo antzeko agiri batez. b) Bestelakoetan, ondoko kopurua izango da: 0,20 euro egindako kilometro bakoitzeko, betiere, joan-etorria egin dela frogatu bada; gehi bidesari eta aparkalekuaren zioz frogatzen diren gastuak.*

3. Erakunde hau ez dator bat gai hau aztertzerakoan jasotako erantzunetatik ondoriozta daitekeen iritziarekin; horren arabera, beka eman ahal izateko, ez dio axola familia batek jasotako kopuruak lana garatu ahal izateko aurretik egin behar izan duen gasturen baten konpentsazio gisa edo loteriako zozketaren sari gisa jaso diren, guztiak hartzen baitira diru-sarreratzat.

Alderantziz, baieztapen hori kontraesanean dago deialdi aginduaren 15.1 artikulua (aztertzen ari garen kasuan benetan aplikatu beharrekoak) hitzez hitz hartuta duen berezko funtsarekin; horren arabera, *“PFEZtik salbuetsitako diru-sarrerak”* ere gehitu behar dira. Izan ere, zerga ordaindu behar ez duten kopuruak teknikoki ez dira salbuetsitako diru-sarrerak; gainera, gure ustez, parekatzea ezin justifika daiteke eta, nolahi ere, ez dator bat ikasketa-



laguntzak desberdintasun sozioekonomikoak konpentsatzera bideratutako neurri gisa hartzen dituen ikusmoldearekin (ildo beretik doa Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea eta deialdi aginduan bertan ere jaso da, hezkuntza baldintza berdinetan eskuratu ahal izateko dauden mugak edo desorekak konpentsatzeko tresnatzat hartzen baititu).

Hain zuzen ere, ikusmolde horri buruz aritu gara gorago, ikasketa-laguntzak definitzen dituzten faktoreetako bat famili unitateen ahalmen ekonomikoarekin zerikusia izatea dela esan dugunean.

Ondorioz, oraindik ez dugu ulertzen zerk eragin dezakeen ondorio horietarako neutroa den elementua, hots, lana garatzerakoan nahitaez egin beharreko gastuaren konpentsazioa, hainbeste aldatzea eta, hala, ahalmena handitzen duen diru-sarreratzat hartzea.

Are gehiago, gure ustez, horrela jardunez gero, zenbateko bera bi aldiz zenbatzen da: hots, errenta/ordainsari gisa jaso zenean eta egindako ordainketaren bihurtze gisa jaso zenean. Nolanahi ere, ez da inolaz ere pentsatu gastua egiteak guztira lortutako kopurua gutxitu dezakeenik.

Ondorioak

Horregatik guztiagatik, aurreko gogoetak ikusita, esan behar dugu, erakunde honen iritziz, erauste dugu ikasketa-laguntzei buruzko espedienteen analisisian familiek lortutako diru-sarrerak beren ezaugarrien arabera bereizi beharko lirakekeela; horrela, benetan ahalmen ekonomiko handiagoa izatea dakartenak hartuko lirakeke aintzat eta alde batera utzi, berriz, horretan eraginik ez dutenak.